



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO ZERRENDAK

78. buletina (2011ko azaroaren 18koa)

UDALAREN ENPLEGU PROGRAMAK

“Euskadi Plana” dela eta hainbat kontsulta egin zaizkionez, hauxe jakinarazten du Funtzio Publikoaren Saileko Hautaketa eta Garapen Atalak:

- Udalak 30 enplegu programa aurkeztu ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2011ko martxoaren 3ko **laguntza-deialdirako** (2011-04-01eko EHAA, 64. zk.), **zeina langabezian egonik kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko** baita.
- 30 enplegu programa horien bitartez, 34 lizentziadun, 6 diplomadun eta lanbide heziketako 33 tituludun kontratatuko dira, **6 hilabeterako, praktiketako kontratuak** baliatuz.
- **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez hautatuko** dira pertsona horiek, beraz, **garrantzitsua da planaren betekizunak betetzen dituzten interesdunek beren txosten pertsonala eguneratua izatea eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa agertzea.**
- Kontratazio horietaz baliatzeko dagokion Dekretuan ezarritako **betekizunak** eta oro har **praktiketako kontratuei** dagozkienak bete beharko dira:
 - Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izen emanda egotea.
 - Ikasketa ofizial hauek amaitu zirenetik bost urte baino gehiago igaro ez izana: goi mailako lanbide heziketako titulua, diploma edo lizentzia (erreferentzia: 2007-01-13). Kontratua langile ezinduren batekin egiten bada, epea sei urteraino luza daiteke (erreferentzia: 2006-01-13).
 - Praktiketako kontratua eskuratzeko aukera ematen duen prestakuntzaren alorrean 6 hilabetetik gorako lan eskarmenturik ez izatea.
 - Langabezian egotea, eta kotizaziopeko langabezia-prestazioarik ez jasotzea.
 - EAEko edozein udalerritan erroldatuta egotea 2011-04-01 baino lehenagotik, edo gutxienez hiru urtez egon izana azken bost urteetan.
- **Ez da berariazko deialdi publikorik egingo.** Euskal Enplegu Zerbitzuak zuzenean aukeratuko ditu hautagaiak, lanpostuen betekizunak (titulazioa), kontratazio betekizunak (praktiketako kontratua) eta programaren helburuak betetzen dituzten pertsonen artetik. Azaroaren 25ean hasiko dira hautagaiak aukeratzeko. Lanbide harremanetan jarriko da behin-behineko hautatutako pertsonekin. Geroago, Gasteizko Udalak joko du haiengana, betekizunak betetzen direla erakusten duten agiriak egiaztatzearen.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA